



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

## HONDARTZETAN SOROSPEN ZERBITZUAK EMATEAGATIK ITSAS ONDOKO HERRIETAKO UDALEI LAGUNTZAK, 2017

GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

### XEDEA

Itsas ondoko herrietako udalei, hondartzetako sorospen zerbitzua emateak 2017. urtean ekarriko dizkien gastuengatik, Foru Aldundiak emango dizkien diru laguntzak.

\* Bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edo nazioko edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzekin.

### ONURADUNAK

Adierazi den zerbitzua ematen 2017. urteko ekitaldian gastuak egin dituzten Gipuzkoako udalak.

### DIRUZ LAGUNDUKO DIREN EKINTZAK

1.Honelako gastuak sartzen dira laguntza hauen xedeetan: Langileak aldi baterako kontratatzea; Gurutze Gorria, DYA edo antzeko erakundeekin kontratuak edo hitzarmenak egitea; hornidurak kontratatzea eta segurtasuneko elementuak alokatzea, hala nola, balizak, megafonia eta seinaleak; eta izaera bertsuko beste gastu batzuk, baldin sorospen zerbitzua emateko xedea badute, zuzenean eta soilik.

2.Elementu berriak erosteko inbertsioetan, elementuen ustezko erabilpen denboraren zati proportzionala egotziko zaio aurtengo ekitaldiari.

3.Ez da laguntzarik emango izaera iraunkorreko fabrika obretan edo elementu finkoetan inbertsioak egiteko.

### EPEA

Eskaerak aurkezteko epearen bukaera: **2017/10/31**

Tokia: Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan (Gipuzkoa plaza , 2. solairua - Donostia).

## DOKUMENTAZIOA

Diru laguntza jaso ahal izateko, irailaren 25eko 124/2007 Foru Dekretuko 12. artikuluko 3. puntuan ezarri bezala gastuen egiaztapena frogatzen duten agiriak.

Burura eraman den ekintzaren azalpen txostena zer zerbitzu eman diren eta sorospen zerbitzuek hondartzetan zenbat esku-hartze egin duten jasota.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzen 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aipatzen diren eta onuradun izatea eragozten duten debeku egoeretan ez daudela eta zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatena erantzukizun aitortzen.

Diruz lagundutako jarduketara finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

## ARAUDIA

683/2017 Foru Agindua, ekainaren 20koa, Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondar tze tan sorospen zerbi tzua eskain tze agatik 2017ko lagun tzak emateko deialdi publikoa onar tzen duena(2017/06/28ko GAO)